



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Plangintza eta
Antolamenduko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Planificación y
Ordenación Sanitaria

TOXIKOMANIEI BURUZKO **I**NFORMAZIO **S**ISTEMA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2006

2008ko uztaila

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua
Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza
Osasun Saila

SARRERA

Toxikomaniei buruzko Estatu-mailako Informazio Sistema (SEIT), Drogei buruzko Estatuko Planaren barruan jarri zen martxan, 1987an. Informazio-sistema hori, hasiera batean, opiazeo eta kokainaren kontsumoaren zeharkako adierazleetan oinarritzen zen, baina 1996. urtetik aurrera gainerako substantzia psikoaktiboetara zabaldu zen. 2003. urtean, halaber, beste aldaketa bat jasan zuen eta *Treatment Demand Indicator* (TDI) izeneko Europako protokolo estandarrarekin bat egin zuen.

Momentu honetan, SEIT delakoaren adierazleak beste adierazle batzuekin batera "Drogei buruzko Espainiako Behatokia" (OED) izenez ezagutzen denean sartuta daude.

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Osasun Sailaren bitartez, informazio-sistema horretan sartuta dauden adierazleen datuak bildu dira, definitzen joan diren heinean. Horrez gain, gertatu diren aldaketak pixkanaka-pixkanaka txertatu izan dira. Adierazle horiek Drogamenpekotasunen Euskal Behatokiaren barruan sartuta daude.

Hona hemen sartutako aldaketekin erabilitako adierazleak:

TRATAMENDU-ADIERAZLEA, urte jakin batean, substantzia psikoaktiboen abusua edo mendekotasuna toxikomaniak tratatzeko zentroetan (Osakidetzako zein Sarearekin itundutako edo itundu gabeko zentro pribatuak) tratatzeari ekiten dioten urteko pertsona-kopurua zein den jakitzeko erabiltzen da.

URGENTZIA-ADIERAZLEA izenekoak jakin nahi du, 15 urtetik 54 urtera arteko pertsonetan ospitaleko zenbat urgentzia-gertakari gertatu diren; betiere, gertakari horietan substantzia edo droga psikoaktiboek erabilera aipatu bada.

HILKORTASUN-ADIERAZLEAK hauxe du helburutzat: gure erkidegoan 10 urtetik 64 urtera arteko pertsonengan substantzia psikoaktiboek kontsumo ez mediko eta intentzionalaren ondoren, kontrako ondorio akutua dela-eta gertatutako urteko heriotza-kopurua ezagutzea.

MATERIALA ETA METODOAK

Informazioa, SEIT delakoak ezarri eta 1996an eta 2003an aldatutako protokoloaren arabera biltzen da. Datu-bilketa, adierazleen arabera, desberdina da.

TRATAMENDU-ADIERAZLEAn datu-bilketa pasiboki egiten da. Zentroek, erregimen ambulatorioan tratamendua onartzeko jakinarazpen-orriak Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzura bidaltzen dituzte, Osasun Saileko Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritzara, hain zuzen ere. Bertan, datuak egiaztatu eta akatsak zuzendu ondoren, datuak prozesatu eta bikoiztuak ezabatu egiten dira. Jakinarazpen-orri horietan honako datu hauek biltzen dira: batetik, datu sozio-demografikoak (sexua, data eta jaiotako probintzia, egoitzako udalerria eta probintzia, nazionalitatea, heziketa-maila, lan-egoera, bizikidetzeta eta bizi izan den tokia); bestetik, drogen kontsumoari buruzkoak (tratamendua onartzea eragiten duen droga nagusia alkohola barne, kontsumoaren maiztasuna, kontsumoaren hasiera-urtea, aldezturik tratamendua egitea, kontsumitzen diren bestelako drogak, administratzeko bidea eta egoera serologikoa GIBaren aurrean)¹; eta azkenik, erreferentzia-iturria.

Txosten honetan aurkezten diren emaitzak, zentro eta instituzioek egindako jakinarazpenetatik datoz. Emaitza horiek 1. eranskinean ageri dira., 2006. urtean jasotakoak dira; eta, guztira, 39 zentrori (Osakidetzakoak zein pribatuak) dagozkie. Alkohola dela kausa tratamendua hasteari buruzko deskripzioa, modu zehatzagoan egin da aurten.

URGENTZIA-ADIERAZLEAN, substantzia psikoaktiboen kontsumoaren aipamena egiten duten urgentzia-gertakarien bilaketa aktiboa egiten da. Bilaketa hori, erregistro horretarako EAEn erreferentziatzat hartu diren ospitaleetan (Gurutzetako, Basurtuko eta Galdakaoko ospitaleak) egiten da, 15 urtetik 54 urtera arteko pertsonetan. OED delakoaren koordinazioak, bestalde, gertakari horiek hilabete bakoitzeko zein astetan bilduko diren ezartzen du. Substantzia psikoaktibo guztiak barne hartzen dira, tabakoa eta alkohola izan ezik, bestelako substantzia psikoaktiboen² kontsumoarekin erlazionatuta egon ezean.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA 1996. urteaz geroztik, Euskal Autonomia Erkidegoko barruti judizial guztietan SEIT³ protokoloaren arabera biltzen da. 2001. urtetik aurrera, Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea (AMEE) martxan jarri zenetik, heriotzen jakinarazpenak institutu horrek Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian dituen zuzendariordetzetako auzitegiko medikuen bitartez egiten dira, substantzia psikoaktiboekiko erreakzio akutuak eragindako heriotzaren auzitegiko diagnostikoa ezarri ondoren.

Tasen kalkulua egiteko erabili den biztanleriari buruzko informazioa, EUSTATEk (Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística) eman du.

Analisia deskriptiboa da hiru adierazleen kasuan.

EMAITZAK

TRATAMENDU-ADI ERAZLEA

2006. urtean, guztira, tratamendurako 2.695 onarpen jakinarazi ziren. Horietatik, % 13 Arabako zentroetan, % 25 Gipuzkoako zentroetan eta kopururik handiena Bizkaikoetan (onarpenen % 62). Guztira hartuta, 2.630 onarpen EAEn bizi zirenen artean gertatu ziren. Gehienak (2.362) Espainian jaiotakoak izan ziren, ondoren Marokon (55), Aljeria (29), Portugal (27) eta Kolonbia (22) jaiotakoak daude, beste jatorrizko herrialde batzuez gain.

1. grafikoan, eragiten duen drogaren arabera tratamendurako onarpenen banaketa ikus daiteke. Ikus daitekeen moduan, alkohola da tratamenduaren hasiera-kopuru handiena eragiten duena (994 onarpen). Bigarren tokian kokaina aurkitzen da 833 onarpenekin, eta hirugarren heroina (504 onarpen).

1. taulan ikus daitezke zeintzuk diren tratamendurako onartuak izan diren pertsonen ezaugarriak, horretarako eragin duen drogaren arabera banatuta daudelarik. Horrela, ikus daiteke ezaugarri sozio-demografikoak eta kontsumokoak drogaren arabera aldatu egiten direla. Gazteenak dira (batez besteko adina: 25,2 eta 27,8, hurrenez hurren), kannabisa eta anfetaminak kontsumitzeagatik tratamendurako onartzen direnak; eta adinean aurrerago doazenak dira, alkohola dela-eta tratamenduari ekiten diotenak (batez besteko adina: 45 urte). Ikasketa-mailari dagokionez, maila baxuagoa dutenak dira heroinaren kontsumoagatik tratamendua hasten dutenak. Ikasketa-maila altuagoa dutenak, berriz, kannabisa eta alkohola kontsumitzeagatik onartzen dira. Profil hori, halaber, aurreko urteetan erreparatutakoaren antzekoa da.

Lan-egoera kontuan hartzen bada, neurri handiago batean lan-egoera egonkorra, hau da, lan-harreman mugagabea dutenak, kokainaren kontsumoa dela-eta tratamendua hasten duten pertsonak dira. Kannabisa kontsumitzeagatik tratamendua hasten dutenen % 25, ikasleak izaten dira. Azpimarratu behar da, gainera, kasu guztiak kontuan hartuta, tratamendua hasten duen hiru pertsonatik bat langabezian aurkitzen dela.

Kasu gehienetan etxeetan, etxebizitzetan edo apartamentuetan bizi dira eta gehienak gurasoekin edo jatorrizko familiarekin bizi dira; alkohol eta heroinaren kasuan izan ezik, kasu hauetan bizikidetzako egoerak eredu desberdina eta aldakorra baitu. Alkoholaren kasuan, asko bikotekidearekin eta seme-alabekin edo bakarrik bizi dira. Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, heroina eta kokaina kontsumitzeagatik tratamendua hasten dutenen kasuan norberaren ekimenez medikuarengana jotzen dute; baina, alkohol eta kannabisaren kasuan, gehienak lehen mailako atentzioko medikuak bidalita etortzen dira.

Aurretiazko tratamendua egin edo ez egitean ere desberdintasunak aurkitzen ditugu. Horiek horrela, ikus daiteke heroina eta heroina + kokaina kontsumitzeagatik tratamendu-hasieretan, 10 kasutatik 8 eta 9 berriz hasteak direla. Kannabisaren kasuan, lau kasutatik batek baino ez zuen aldeaz aurretik tratamendua jaso.

Droga nagusiaren kontsumo-maiztasunari dagokionez, heroina, kannabisa eta alkohola kontsumitzen duten pazienteek, gehienek egunero kontsumitzen dute. Hala ere, anfetaminen edo kokainaren kasuan egunero kontsumitzen da edo bestela asteburuko kontsumoa izaten da, baina antzeko proportziotan.

Droga nagusia kontsumitzen daramaten denborari dagokionez, desberdintasunak aurkitzen dira onarpena eragiten duen drogaren arabera. Alkohol eta heroinaren kasuan, gutxi gorabehera, hiru kasutatik bitan hamar urte baino gehiago daramate kontsumitzen; hala ere, anfetaminen, kokainaren edo kannabisaren kasuan kontrakoa gertatzen da, tratamendurako hamar onarpenetatik sei inguruk sei kontsumo-urte baino gutxiago daramatelako.

Administrazio-bideari dagokionez, azpimarratu behar da heroinaren kasuan injektio bidea erabiltzen dutenak guztizkoaren 31,9 baino ez direla. Kokainaren eta anfetaminen kasuan, gehienek sudur baretatik hartzen dituzte.

2. taulan ikus daiteke, 1994. urtetik 2006. urtera arte, toxikomaniak direla-eta tratamenduan hasitako kopuruak izan duen eboluzioa, eragiten duen droga nagusiaren arabera, alkohola kanpoan utzita. Kontuan hartu behar da 1995era arte, heroinak edo kokainak eragindako onarpenak baino ez zirela erregistratzen. 1996. urtean onarpen-kopuru handiena erregistratu zen, eta ikus daitekeen bezala, harrezkero kopuru osoaren jaitsiera progresiboa gertatzen da, 2000. urtera arte irauten duena eta heroinak eragindako onarpenen jaitsieraren parekoa dena. Hala ere, 2001. urtetik aurrera, kopuru osoak berriro gora egiten du, batez ere, kokaina eta kannabisaren kontsumoagatik tratamendurako onarpen-jakinazpenak gehitu egiten direlako. 2005. urteaz geroztik, 2006an jarraitzen duen jaitsiera berri bat ematen da, 1995etik lehenengo aldiz kokainak eragindako onarpen-kopuruak behera egin duelarik.

Analisi hori nagusizat jakinarazi den droga abiapuntutzat hartuta egin da, baina azpimarratu behar da tratamendua hasten duen pertsona bakoitzak, droga nagusiaz gain beste droga batzuk kontsumitu ahal dituela. Kasu horietan, droga horiek "tratamenduaren onarpena egin aurretik azken egunetan kontsumitutako bestelako drogak" bezala jakinarazten dira. 2006an, tratamendua hasi zuten pertsonen % 52 inguruk gutxienez beste droga bat kontsumitzen zuten eta % 25ak bi gehiago; % 9k, berriz, gutxienez hiru droga gehiago kontsumitzen zituen. (Datu horiek ez dira taulan agertzen).

2. grafikoak, droga nagusiak direla-eta hasitako tratamenduen eboluzioa erakusten du, alkohola alde batera utzita. Gainera, grafiko horretan zera ikus daiteke: batetik, 2003. urtetik aurrera EAEn kokaina dela-eta hasitako tratamenduek heroina dela-eta hasitakoak gainditzen dituztela; eta bestetik, 2006an kokainak lehendabiziko aldiz zertxobait behera egiten duela. **3. eta 4. grafikoetan**, Espainiako estatu osoan 2005era arteko eboluzioa zein izan den ikus daiteke. Horietan eta EAerako aurrerago adierazitako bezala, jaitsiera progresiboa gertatu dela ikus daiteke heroinagatik tratamenduan hasitako kasuetan; baina, kokainaren kasuan igoera hautematen da.

3. taulan, alkohol-kontsumoagatik tratamendua hasten duten pertsonen ezaugarri sozio-demografikoak zehatzago deskribatzen dira.

Taula horretan ikus daitekeen moduan, batez besteko adina 45 urte ingurukoa da, gizonezkoen zein emakumezkoen kasuan, nahiz eta kontsumoaren hasieran batez besteko adina txikiagoa den 20 urterekin edaten hasten diren gizonezkoetan, emakumezkoak ia 27 urterekin hasten baitira. Bizkaiko zentroak dira, alkoholagatik tratamenduari ekiten dioten pertsona gehien pilatzen dituztenak. Ikasketa-mailari dagokionez, emakumezkoek gizonezkoek baino neurri handiagoan dituzte bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak, nahiz eta langabezian edo soilik etxeko lanak egiten gizonezkoak baino sarriago egon.

Jaiotako herrialdea kontuan hartzen badugu, gehienak Espainian jaiotakoak izan arren (horietatik % 74 EAEn jaiotakoak), emakumezkoen kasuan jatorriko herrialdea atzeritarra dutenen portzentajea handiagoa dela ikus daiteke, emakume latinoamerikarrek gutxi gorabehera emakumezko guztien % 7 suposatzen dute. Gizonezkoen kasuan, jatorrizko herrialderik ohikoenak (Espainiatik kanpo) Maroko eta Aljeria dira.

Bizikidetzari dagokionez, eredia antzekoa da gizonezkoetan eta emakumezkoetan, seme-alabekin bakarrik bizi direnen kasuan izan ezik, azken kasu horretan emakumezkoetan % 15ean ematen baita eta gizonezkoetan % 3an baino ez.

Erreferentzia-iturri nagusiari dagokionez, hau da, pertsona hori tratamenduzentzora nola eta noren bidez iristen den, gehienak lehen mailako atentzioko medikuak bidalita joaten dira. Emakumezkoen kasuan desberdina da, aipatutako medikuak bidaltzeaz gain, neurri handi batean ospitaletatik edo bestelako osasun-zerbitzuetatik iristen direlako.

Emakumezkoen % 58k ez zuen aurretiaz tratamendurik hartu. Gizonezkoen kasuan portzentaje hori txikiago da, % 52,6k ez zuelako alkoholaren kontsumoagatik aurretiazko tratamendurik jaso.

Kontsumoaren maiztasuna kontuan hartzen badugu, ikus dezakegu gizonezkoek egunero kontsumitzen dutela (% 66,1), eta proportzioa emakumezkoena baino altuagoa dela. Hala ere, asteburuetan egiten den kontsumoan (astean 2-3 egun), emakumezkoak dira portzentaje altuagoa dutenak.

Nabarmendu behar da, gizonezkoek zein emakumezkoek denbora luze daramatela alkohola kontsumitzen. Gizonezkoen kasuan, esaterako, % 60k baino gehiagok hamar urte baino gehiago daramate alkohola kontsumitzen.

5. grafikoan, sexuaren arabera 1997tik alkohola dela-eta tratamenduaren hastapenen eboluzioa ageri da. Bertan ikus daiteke, 2002an onarpenkopururik altuena erregistratu zela.

URGENTZIA-ADIERAZLEA

EAEko erreferentzia-ospitaleetan (Bizkaia) eta OED delakoaren koordinazioak adierazitako 12 asteetan erregistratutako gertakarien arabera, 2006. urtean substantzia psikoaktiboen erabilera aipatzen zuten ospitaleko 319 urgentzia-gertakari erregistratu ziren.

Laginaren 12 asteetan erregistratutako urgentziak direla kontuan hartuta, erreferentziako hiru ospitaleetan 2006. urtean zehar, guztira, 1.386 urgentzia kalkula litezke. **4. taulan** pazienteen ezaugarriak deskribatzen dira.

Gertakarien % 53,6 Basurtuko ospitalean erregistratu ziren. Kasuen % 64 gizonezkoak izan ziren, 33,5 urteko batez besteko adinarekin. Emakumezkoak, ostera, zertxobait gazteagoak izan ziren (30,7 urteko batez besteko adina). Erregistratutako urgentzia-gertakarien bi herenetan, urgentziaren diagnostikoa drogen kontsumoarekin zuzenki erlazionatuta dago. Kasu gehienei alta eman zitzairen. Diagnostikoen kopuru osoa 455ekoa izan zen, eta horrek honako batez besteko hau adierazten du: urgentzia-gertakari bakoitzean 1,4 diagnostiko.

ANALISIA, DROGAK BANAN-BANAN IKUSITA

5etik 10era arteko tauletan, honako hauek aipatzen dituzten kasuetan urgentziaren diagnostiko guztien banaketa erakusten da: heroina, kokaina, anfetaminak, speed, kannabisa eta hipnotikoak eta lasaigarriak. Ez da alkohola deskribatzen, urgentzia-gertakarian alkohola bakarrik aipatzen bada, ez delako kasu gisa jasotzen.

Heroinaren kontsumoa aipatzen duten urgentzia-gertakarien kasuan (**5. taula**), kasuen erdian baino gutxiagotan urgentzia-diagnostikotzat drogekin zuzenki erlazionatuta (F10etik F19ra) daudenak seinalatzen dira, eta beste diagnostiko batzuek garrantzi handiagoa daukate; horien artean GIBa dago (B24) kasuen % 8,2an.

Kokainaren kontsumoa aipatzen den urgentzien kasuan, kasuen erdia baino zertxobait gehiagotan (% 53), urgentziaren eragiletzat seinalatzen diren

diagnostikoek, BESTELAKO drogen kontsumoarekin zerikusia daukate, esate baterako ia proportzio berean ageri den alkohola. Era berean, beste hauek ere kontuan hartu behar dira: herstura-trastornoak (% 7,7), takikardiarekin, palpitazioekin eta bularreko minekin (bihotzaurreko minak eta bestelakoak) zerikusia dutenak (% 7,7) eta GIBa taldekatzen duten diagnostikoen multzoa (B20-B24) (% 5,7) (**6. taula**).

Kannabisaren kasuan (**9. taula**), drogen kontsumoarekin zerikusi zuzena duten diagnostikoek % 45,3 adierazten dute, eta beste hauek nabarmendu beharrekoak dira: herstura-trastornoak (% 15,1) eta takikardia, palpitazio eta bularreko minen taldea (% 8,6).

Erregistratutako diagnostiko gehienetan hipnotiko eta lasaigarrien kontsumoa aipatzen denean (**10. taula**), substantzia psikoaktiboen kontsumoarekin eta trastorno mentalen taldearen barruan (F00-F99) beste diagnostikoekin zerikusia daukate. Gainera, garrantzitsua da nabarmentzea saio autolitikoek diagnostikoen % 18,4 suposatzen dutela.

Urgentzia-gertakarietan sarrien aipatu ziren substantzietan dagokienez, **11. taulan** deskribatzen denaren arabera, alkoholak lehenengo tokia hartzen du, eta atzetik hipnotikoak eta lasaigarriak eta kokaina ditu.

12. taulan, diagnostikoa haien kontsumoarekin zuzenki erlazionatuta zegoen urgentzia-gertakarietan kontsumituta gisa aipatzen diren substantzien banaketa ageri da. Kasu honetan, hipnotikoek eta lasaigarriek lehenengo postuan daude; eta ondoren, alkohola eta kokaina datoz.

HILKORTASUN-ADIERAZLEA

2006. urtean, substantzia psikoaktiboekiko kontrako ondorio akutuak eragindako 50 hildako erregistratu ziren: % 58 Bizkaian, % 28 Gipuzkoan eta % 14 Araban. Horiek guztiak EAEn bizi ziren, Kantabria probintziako egoitzatzat zuten 2 pertsonen kasuan izan ezik.

13. taulan datu sozio-demografikoak eta hildakoen informazio klinikoa deskribatzen dira. Horrela, ikus daiteke hildakoen % 82 gizonezkoak zirela eta haien batez besteko adina 38,0 urtekoa izan zela. Emakumezkoen kasuan, berriz, batez besteko adina 41,9 urtekoa izan zen.

Heriotza etxean edo kalean gertatu zen kasu gehienetan, eta suizidioaren ebidentziak 7 kasutan aurkitu ziren. GIBaren aurrean egoera serologikorako balio ezezagunen proportzioa oso altua da.

14. taulan, hildakoen analisi toxikologikoetan aurkitutako substantzien multzoa deskribatzen da, sarrien aurkitu den substantzia kokaina izan delarik, eta ondoren heroina. Hildako bakoitzean, batez beste, 3 substantzia psikoaktibo aurkitu dira.

Hauxe izan zen, bi sexuetan, drogekiko kontrako ondorioak eragindako hilkortasun-tasa: 100.000 biztanleko 3,10. Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa (EET), berriz, 100.000 biztanleko 2,70ekoa izan zen (KT % 95 1,93-3,46).

Gizonezkoen kasuan, EET delakoa 100.000 biztanle bakoitzetik 4,46koa izan zen (KT% 95 3,07-5,85). Emakumezkoen kasuan baxuagoa izan zen: 100.000 biztanle bakoitzetik 0,88 (KT% 95 0,27 - 1,50).

6. grafikoan, azken 10 urteetan substantzia psikoaktiboekiko kontrako ondorioek eragindako hilkortasun-tasaren eboluzioa aurkezten da. Ikus daitekeen moduan, 2003. urtera arte gizonezkoen zein emakumezkoen hilkortasun-tasan beheranzko eredia erreparatzen zen arren, 2004. urtetik aurrera igoera bat gertatzen da, 2005ean mantendu eta 2006an berriro jaisten dena.

15. taulan, 1997. urteaz geroztik substantzia psikoaktiboekiko kontrako ondorioek eragindako hilkortasunaren eboluzioaren deskripzio xehatua aurkezten da. **7. grafikoan** hildakoen batez besteko adinaren eboluzioa ageri da, eta ikus daiteke adinak gora egiten duela 10 urteetan zehar, 1997an batez besteko adina 30 eta 31 urtekoa izatetik gizonezko eta emakumezkoentzat hurrenez hurren, 2006. urtean 38 eta 42 urte, hurrenez hurren, izatera igaro baita.

OHARRAK

Zeharkako hiru adierazle horiei buruzko datuen deskripzioak, EAEn drogen kontsumoaren arazoan ikuspegi orokor eta hurbil bat izateko aukera ematen digu, arazo beraren alderdi desberdinak erakusten baitizkigu.

Tratamendu-adierazlean, 2005ean hasi zen jakinerazpenen kopuruan beheranzko joera mantentzen da, guztira 98 gutxiago jakinarazi baitira. Espainian ere jakinarazpenen kopuruak behera egin du⁴, eta joera hori ondorengo urteetan finkatzen den ala ez aztertu beharko da.

Aldez aurretik egindako txostenetan aditzera ematen den bezala⁵, heroinagatik tratamenduaren onarpen-kopuruaren beherakada progresiboak berdin darraielatik ikusten da; baina, 1995etik lehenengo aldiz, kokainagatik tratamenduen onarpenen jakinarazpen-kopuruan beherakada bat gertatu dela ikusten da, beste autonomia-erkidego batzuetan gertatu den bezala. Katalunian, esaterako, erregistroa hasi zenetik lehendabiziko aldiz jakinarazpenek behera egin dute, nahiz eta horregatik ezin den ondorioztatu kokainaren kontsumoa gutxiagotu denik. Europan⁶, kokainak tratamendu-eskariari dagokionez hirugarren tokia hartzen du, heroinaren eta kannabisaren atzetik baitago; baina nabarmendu behar da, Espainia buru dela droga horren kontsumoaren prebalentzia-mailetan.

Gainera, kannabisagatik tratamendurako onarpenen goranzko joera bare, baina progresiboak darrai, toxikomania ez alkoholikoengatik tratamenduasieraren % 11 suposatuz. Portzentaje hori bat dator Espainia osoan⁴ 2005ean onarpen guztientzako informazioarekin, tratamendurako hasieraren % 11 adierazten baitute. Europan⁶ tratamendu-eskariaren % 20 adierazten du, heroinaren ostean bigarren tokia hartuz. EAEn, kannabisaren kontsumoagatik tratamendua hasten duten pertsonak, neurri handi batean, ikasleak dira eta gazteenak dira, Europan⁶ gertatzen den bezala. Azpimarratu behar da, bestalde, zeintzuk diren kannabisaren kontsumoak dakartzan ondorio negatiboak: eskola-porrota, desegituratze pertsonala eta soziala eta lanarekin eta osasunarekin zerikusia duten arazoak. Badirudi, neurriak ezarri diren arren, ez dela lortu kontsumo honen arriskuaren eta berekin dituen ondorio larrien pertzepzioa gehitzea⁷.

Aurten, alkohola dela-eta tratamendu-hasierak zehatzago aztertzeari ekin zaio, eta deigarria da gizonezko zein emakumezkoetan agertzen den kontsumoaren maiztasuna eta iraupen luzea. Sozialki onartuago egoteak ez du baztertzen pertsona-kopururik handienarengan eragina duen kontsumoa izatea eta, gainera, aldi berean droga desberdinak kontsumitzen dituzten edo politoxikomanoak diren tratamendurako onartutako pazienteen kopuru garrantzitsu batean ageri da. Errealitate hori ezagutzea, gure analisisian modu iraunkor batean sartzeko besteko garrantzitsua dela iruditzen zaigu.

2003an urgentzia-gertakariak sartzeko irizpidea aldatu zenetik, kasu gehiago erregistratu dira, drogen kontsumoa aipatzen den gertakariak jasotzen direlako eta ez kontsumoarekin zerikusia duten urgentziak bakarrik. 2006an, Gurutzetako ospitalean bilaketa aktibo sakonagoa egin da, horregatik datuak ezin dira aurreko urtekoekin konparatu; beraz, eboluzioa ezin da behar bezala aztertu.

Adierazleak, ausaz aukeratutako hilabete bakoitzeko aste batean, Bizkaiko Lurralde Historikoko ospitaleen lagin bat hartzen duenez gero, ez da adierazgarria EAE osorako, baina Tratamendu eta Hilkortasun adierazleena osatzen duen informazio interesgarria ematen digu.

2006an, urgentzia-gertakarien diagnostikoak lehenengo aldiz deskribatzen dira, aipatzen diren droga guztiak kontuan hartuta eta ez diagnostikoarekin zerikusia dutenak bakarrik. Drogak aipatzen diren urgentzia-gertakari gehienetan, droga horiek alkoholarekin, hipnotikoekin, kokainarekin eta kannabisarekin zerikusia daukate. Hipnotikoak dira, diagnostikoak kontsumoarekin zuzenki erlazionatuta dagoen urgentzietan, portzentajerik altuena adierazten dutenak, aurreko urtean bezala eta gehienak benzodiazepinen taldekoak dira. Gertaera hori azpimarratzen da, droga "ilegalekin" gertatzen ez den bezala, hauek eskuratzeko errezeta behar dutelako. Substantzia psikoaktiboek kontsumoarekin erlazionatutako urgentzietan, pertsona bakoitzak baieztatu zuen batez beste bi droga hartu zituela. Era berean, garrantzitsua da adieraztea alkohola erregistratzen dela beste droga batzuekin batera dagoenean bakarrik; beraz, alkoholaren kontsumoa bakarrik aipatzen den urgentziak ez dira kontuan hartzen

erregistro hau betetzeko orduan. Hala eta guztiz ere, sarrien aipatzen den droga da.

Aurreko urteetan, EAEn Hilkortasun Adierazleak drogen kontrako ondorioetatik hilkortasun-tasaren jaitsiera progresioa erakusten zuen, eta 2004an tasarik baxuena eman zen. 2005. urtean tasa horren igoera erregistratu zen, Espainia osoan⁴ gertatu zen bezala, horren arrazoia zein den jakin gabe, heroina urte horretan hildakoengan sarrien aurkitu zen droga izanik eta 2006an tasak berriro behera egin du eta kokaina izan da, 2004an bezala, proportzio handiagoan aurkitzen dena; beraz, tasak azken urte hauetan ezegonkorrak izan dira.

Europan⁶ ere seinalatzen da, 2000. urteaz geroztik beheranzko joera zuten drogekin erlazionatutako heriotzek, zertxobait gora egin zutela 2004an herrialde gehienetan. EAEn, drogen kontrako ondorioetatik hildakoen batez besteko adinak gora egiten jarraitzen du modu nabarmenagoan emakumezkoetan.


BIBLIOGRAFIA

1. Sistema Estatal de Información sobre Toxicomanías (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Admisiones a Tratamiento por Consumo de Sustancias Psicoactivas. Madrid, 2002.
2. Sistema Estatal de Información sobre Toxicomanías (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Urgencias Hospitalarias Directamente Relacionadas con el Consumo de Sustancias Psicoactivas. Madrid, 2002.
3. Sistema Estatal de Información sobre Toxicomanías (SEIT) (2003). Protocolo del Indicador Mortalidad por Reacción Adversa Aguda a Sustancias Psicoactivas. Madrid, 2002.
4. Observatorio Español sobre Drogas. Informe 2007.
5. Informe del Sistema Estatal de Información sobre Toxicomanías. Comunidad Autónoma del País Vasco 2005. Documento de trabajo.
6. Observatorio Europeo de la Droga y las Toxicomanías. 2007. Informe anual sobre el problema de la drogodependencia en la Unión Europea y en Noruega. Luxemburgo: Oficina de Publicaciones Oficiales de las Comunidades Europeas, 2007.
7. Plan Nacional de Drogas. CANNABIS. Informe de la comisión clínica de la Delegación del Gobierno para el Plan Nacional de Drogas. Madrid, 2006.

ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU

Toxikomaniak tratatzeko zentroetako profesional guztiei eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko auzitegiko medikuei, datuen bilketan eta bidalketan izan duten zehaztasunagatik. Era berean, Basurtuko, Gurutzetako eta Galdakaoko ospitaletako Dokumentazio Zerbitzuei eskerrak eman nahi dizkiegu, kasuen bilketa errazten dutelako.


1. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.
Tratamendurako onarpenak, eragiten duen drogaren arabera.
EAE 2006.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

2. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.


Heroina, kokaina eta kannabisaren tratamendurako onarpen-kopuruaren eboluzioa.
EAE 1999-2006.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

3. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.


Espanian heroinaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen kopuruaren eboluzioa. 1991-2005.



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu Adierazlea.

4. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.


Espainian kokainaren abusu edo mendekotasunagatik tratatutakoen kopuruaren eboluzioa. 1991-2005.



Iturria: DGPNSD. Observatorio Español sobre Drogas (OED). Tratamendu Adierazlea.

5. grafikoa. TRATAMENDU-ADIERAZLEA.


Alkoholagatik tratamendurako onarpen-kopuruaren eboluzioa, sexua kontuan hartuta.
EAE 1997-2006.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

6. grafikoa. HILKORTASUN-ADIERAZLEA.


Substantzia psikoaktiboekiko kontrako ondorio akutuak eragindako hilkortasun-tasaren eboluzioa, sexua kontuan hartuta.
EAE 1997-2006.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

7. grafikoa. HILKORTASUN-ADIERAZLEA.

Substantzia psikoaktiboekiko kontrako ondorio akutua dela-eta hildakoen batez besteko adinaren eboluzioa, sexua kontuan hartuta.
EAE 1997-2006.



Iturria: Toxikomaniei buruzko Informazio Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

1. taula. TRATAMENDU-ADIERAZLEA. Tratamendurako onartuak izan diren pertsonen ezaugarriak, onarpen hori eragiten duen drogaren arabera. EAE 2006.

	Heroina	Anfetam.	Kokaina	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Kannabisa	Alkohola	Heroina + Kokaina	Beste batzuk	Guztira	
KOPURUA GUZTIRA	504	116	833	3	189	994	17	39	2.695	
BATEZ BESTEKO ADINA (urteak)	(35,8)	(27,8)	(32,1)	(30,7)	(25,2)	(45,0)	(33,4)	(33,3)		
	%	%	%	%	%	%	%	%	K	%
SEXUA										
Gizonezkoak	82,3	74,1	88,2	66,7	92,1	76,8	88,2	69,2	2.217	82,3
Emakumezkoak	17,7	25,9	11,8	33,3	7,9	23,2	11,8	30,8	478	17,7
ADIN-TALDEA										
19 edo gutxiago	0,8	10,3	2,5	33,3	26,5	0,9	5,9	5,1	100	3,7
20-24	3,4	29,3	14,6	0,0	25,9	2,6	11,8	10,3	254	9,4
25-29	12,7	20,7	21,8	0,0	18,5	5,8	23,5	25,6	377	14,0
30-34	26,4	20,7	22,3	33,3	16,4	8,5	11,8	10,3	465	17,3
35-39	26,6	11,2	22,0	0,0	7,9	13,4	17,6	25,6	491	18,2
40-44	21,8	7,8	11,8	33,3	1,1	18,3	29,4	12,8	412	15,3
45-49	6,3	0,0	3,8	0,0	3,2	17,6	0,0	7,7	248	9,2
50-54	0,6	0,0	0,5	0,0	0,0	13,5	0,0	0,0	141	5,2
55 edo gehiago	1,2	0,0	0,2	0,0	0,0	19,4	0,0	2,6	202	7,5
Ezezaguna	0,2	0,0	0,4	0,0	0,5	0,0	0,0	0,0	5	0,2
IKASKETAK										
Ez daki irakurtzen, ezta idazten ere	2,0	0,0	1,2	0,0	2,1	0,9	0,0	0,0	33	1,2
Lehen mailako irakaskuntza osatugabe	19,0	5,2	13,3	66,7	9,0	16,1	5,9	10,3	397	14,7
Lehen mailako irakaskuntza eginda	27,8	22,4	25,7	0,0	19,0	28,1	58,8	12,8	710	26,3
2. mailako irakaskuntza 1. etapa, OHO, DBH, LH-1 edo erdi mailakoa	35,5	55,2	39,3	33,3	38,1	27,8	35,3	33,3	938	34,8
2. mailako irakaskuntza 2. etapa, LH-2, BBB, UBI	10,5	13,8	15,7	0,0	23,8	17,8	0,0	15,4	428	15,9
Unibertsitateko ikasketa ertainak	0,6	1,7	1,7	0,0	3,2	3,9	0,0	5,1	66	2,4
Unibertsitateko goi-mailako ikasketak	2,2	0,9	1,7	0,0	2,6	2,8	0,0	2,6	60	2,2
Beste batzuk edo ezezaguna	2,4	0,9	1,4	0,0	2,2	2,6	0,0	20,5	63	2,3
LAN-EGOERA										
Lan-harreman mugagabea edo autonomia	21,0	31,9	39,4	0,0	25,4	34,4	17,6	20,5	872	32,4
Aldi baterako lan-harremana	13,9	14,7	13,7	33,3	14,8	9,6	5,9	12,8	331	12,3
Soldatarik gabe familiarentzako lanean	1,4	0,0	1,0	0,0	1,6	3,8	0,0	0,0	56	2,1
Langabea, aurretik lanik egin gabea	6,5	3,4	3,5	0,0	4,8	1,4	5,9	5,1	92	3,4
Langabea, lehenago lana egindakoa	41,1	33,6	32,9	33,3	24,9	28,9	70,6	38,5	882	32,7
Ezintasun iraunkorra duen langilea, pentsioduna	6,7	2,6	2,8	0,0	1,6	12,4	0,0	5,1	188	7,0
Ikasten edo oposizioak egiten	0,2	12,1	1,8	0,0	24,9	0,5	0,0	0,0	82	3,0
Soilik etxeko lanak egiten	2,0	0,0	1,0	0,0	0,0	4,5	0,0	2,6	64	2,4
Beste egoera batean edo ezezaguna	4,7	1,8	4,1	33,3	2,1	2,7	0,0	15,4	128	4,7
EGOITZA-TOKIA										
Etxeak, etxebizitzak, apartamentuak	72,8	91,4	88,6	0,0	89,9	86,9	41,2	74,4	2.281	84,6
Espetxea, erreform. edo adingabeentzako zentroa	8,9	0,9	4,4	33,3	2,1	0,7	11,8	0,0	97	3,6
Bestelako instituzioak	2,0	1,7	1,2	33,3	1,6	1,5	5,9	2,6	43	1,6
Pentsioak, hotelak, ostatuak	2,2	0,0	1,2	33,3	0,0	1,6	5,9	2,6	40	1,5
Bizitoki ezegonkorra/prekarioa	8,5	0,9	2,2	0,0	2,1	5,4	11,8	2,6	123	4,6
Beste toki bat	4,6	5,2	1,9	0,0	2,6	1,7	17,6	7,7	73	2,7
Ezezaguna	1,0	0,0	0,5	0,0	1,6	2,1	5,9	10,3	38	1,4
BIZIKIDETZA										
Bakarrik	27,0	7,8	15,6	33,3	9,0	22,2	52,9	20,5	531	19,7
Bikotekidearekin baino ez	11,3	12,1	12,0	0,0	10,1	13,2	5,9	10,3	326	12,1
Seme-alabekin baino ez	1,8	0,0	2,2	0,0	0,5	5,7	0,0	5,1	87	3,2
Bikotekidearekin eta seme-alabekin	9,3	8,6	15,7	0,0	7,9	27,6	11,8	12,8	484	18,0
Gurasoekin edo jatorrizko familiarekin	29,2	56,0	41,9	0,0	60,8	20,7	17,6	28,2	896	33,2
Lagunekin	6,2	6,0	4,4	0,0	3,2	2,0	0,0	0,0	101	3,7
Beste batzuk	13,1	9,5	7,3	66,7	7,4	6,1	11,8	10,3	221	8,2
Ezezaguna	2,2	0,0	0,8	0,0	1,1	2,4	0,0	12,8	49	1,8

1. taula. (jarraipena)

	Heroina	Anfetam.	Kokaina	Hipnotikoak eta lasaigarriak	Kannabisa	Alkohola	Heroina + Kokaina	Beste batzuk	Guztira	
	%	%	%	%	%	%	%	%	K	%
ERREFERENTZIA-ITURRIA										
Drogamenpeketasunen beste zerbitzu bat	13,5	6,0	7,1	0,0	3,7	1,5	0,0	17,9	163	6,0
Mediku orokorra, osasun. lehen mailako atenzioa	18,7	26,7	21,2	0,0	25,4	45,0	0,0	12,8	802	29,8
Ospitalea edo bestelako osasun-zerbitzuak	5,4	14,7	8,3	0,0	8,5	17,7	5,9	5,1	308	11,4
Gizarte-zerbitzuak	4,6	2,6	3,8	0,0	5,3	6,3	5,9	2,6	133	4,9
Espetxea, erreform. edo adingabeentzako zentroa	9,9	1,7	5,0	33,3	4,2	0,5	29,4	2,6	114	4,2
Polizia-zerbitzuak edo zerbitzu legalak	1,4	3,4	3,1	0,0	8,5	0,9	5,9	5,1	65	2,4
Enpresa edo enplegu-emaila	0,4	0,0	0,1	0,0	1,1	0,9	0,0	2,6	15	0,6
Senideak edo lagunak	8,5	14,7	19,1	0,0	18,0	8,0	23,5	7,7	340	12,6
Norberaren ekimenez	35,1	26,7	30,1	33,3	20,6	16,0	29,4	28,2	674	25,0
Beste bat	1,4	0,9	1,3	33,3	3,2	2,5	0,0	5,1	53	2,0
